

Hamaika aukera Artxipelagoan

11. ekitaldia du Atlantikaldiak.
Aniztasuna, sormena eta
elkarlana oinarrian, atzo sortu
eta igandean itzaliko den
jaialdiak une errepikaezinak
bilduko ditu beste behin · 27-35

OSTIRALA, 2024ko URTARRILAREN 20a

Atlantikaldia
2024

ERRETERIA-ORERETA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Artxipelagoa
Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 www.goieko.com

Kultur anitzen Artxipelagoan dena da festa

Atzotik hasita musika, dantza, artea, literatura, kirola, bertsolaritza, historia eta gastronomiarekin lotutako 56 jardueraz gozatzeko aukera Atlantikaldiarekin.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Musika eta kultur mes-tizajearen topaleku da atzotik Errenteria-Ore-reta. Atlantikaldiak handik eta hemendik hartutako hamaika adabaki koloredunez josi du egitaraua

11. ekitaldirako. 11. ekitaldiak, hamaika emozio, hamaika bizipen, hamaika eragile eta harreman, hamaika kolore hartu ditu bere barruan, eta horiekin guztiekin Artxipelagoa bilakatu udalerrria.

Artxipelago horretan, musika eta kultura erruz da atzotik herrian—musika, dantza, artea, literatura, kirola, bertsolaritza, historia eta gastronomiaren inguruko 56 jarduera programatu dituzte orotara— jaialdiak ohikoak dituen lau gune nagusietan: kartel buruen emanaldiak hartuko dituen Itsasargi Nagusia —Agirre Lehendakariaren plaza—; emanaldi intimoagoei begirako espazioa den Herriko Plaza; artista urbanoei begirako Kalekaia —Panier—; eta jarduera parte hartzaileak hartzen dituen Herrixka —Foru plaza—. Gastrogunea ere izango da az-



Eragileak ezinbestekoak dira Atlantikaldiaren egitarau zabalara ontzeko unean, eta haien ekarpena eskertu dute.

Ikerne Zarate

ken gune hori, bertan jarriko baitituzte foodtruck-ak.

Ez hori bakarrik, herriak duen kultur aniztasunaren erakusgarri argienetako bat den Sukaldian programaren azken emaitza ere hartuko du Herrixkak etzi. Elkarte gastronomikoetan kozinatutako Galizia, Ukraina, Pakistan, Turkia, Venezuela, Ijito herria eta Marokoko platerak Herrixkan jarriko dituzte salgai euro batean; jasotako diru guztia, Zaporeak elkarteari emango diote. Eta zer ederrago bada, sorkuntza elkartasun bilakatzea baino?

Plater nagusia jaialdian, baina, mu-



ERRIOTIK, HERRI.
BIBA ATLANTIKALDIA!



**orereta
ikastola**
AURRERA!



www.oreretaikastola.eus



sika da. Askotarikoa, goren, eta urtero harribitxiak sortzen dituen Itsas Elkarrizketei esker. Esti Parada jaialdiaren komunikazio arduradunak nabarmendu bezala, Atlantikaldiaren bereizgarri nagusienetako bat dira. «Nazioarteko eta bertako sortzaileak elkarrekin ariko dira oholtzan, pieza bakarrak sortzeko bertaratzen diren entzule eta ikusleentzat». Esperientzia bakar horren protagonista izango dira gaur bertan Francisco El Hombre eta La Furia (20:00etan), eta Queralt La Hoz eta Safu (23:00), Itsasargi Nagusian.

Esker ona eragileei

Gainontzeko musika emanaldietako protagonistak gaurtik igandera arte, berriz, honakoak: Morgane Ji, Iseo & Dodosound, La Otra, Esanezin, La

Txama, Bichos Raros, Azul Ferreira, The Donkey Riders, Ane Martija, Kbles DJ Set, Akaleia, Ganibet, Elh Malick, Samba Badago, High alai Dj set, Rig3l, Sotoalde, Lamia Mari eta DJ Katanga. Kultur topagune eta musika jaialdia-

ren aurtengo ekitaldia osatzeko bidean, orain arte bezala «gako» izan direla herriko eragileak nabarmendu zuen Aizpea Otaegi alkateak Atlantikaldiaren egitarau osoa aurkezteko ekitaldian, eta horren adierazlerik argiena agerraldi horrek utzitako argazkia izan zen, hamaika eragile bildu baitzuten: «Azken hilabeteotan eragileekin batera egindako lanaren erakusle da egitaraua. Poztekoa da herritarrek Atlantikaldiarekin duten inplikazioa, eta ahalegin hori eskertu egin nahiko nuke». Ez da gutxiagorako, urtero-urtero hutsik egin gabe dira abentura handiaren bidaide eragile asko-asko.

Bertaratzeko gonbita ere egin zuen Otaegik: «Musikak edo beste ekitaldiek eduki dezaketen erakarmentik harago, jendea gonbidatuko nuke ere itsu-itsuan etortzera, jaialdiak eramaten zaituelako, eskaintza oso zabala da, eguna, goiza edo arratsaldea pasatzeko mila modu eskaintzen ditu, eta itsu-itsuan etorrita ere gauza ederra da Atlantikaldiaz gozatzea». ■

biteri kalea, 34 · orereta-errenteria · tel 943 526 753

OREKA
ENTZUMEN ZENTROA



Artxipelagoan irribarre!

Nagore Cabada

HORTZ KLINIKA

Santa Klara plaza, 2. 20100 Errenteria.
Tel.: 943 017 876. klinikanc@gmail.com



Ikerne Zarate

« Dantzan gorputza mugitzen dugu, baina baita energia ere »

Movimiento Infinito kolektiboko Anibal Andres Quiceno eta Carlos Cardosok emanaldia eskainiko dute bihar 20:00etan Itsasargi Nagusian Morgane Jirekin batera. Dantzaguneak, Sortutakoak programarako hautatu zituen bi kolonbiarrak.

Zer da Movimiento Infinito kolektiboa?

CARLOS CARDOSO: Anibal Quiceno da sortzailea. Gorputzaren joan-etorriarekin zerikusia duen mugimendu berezi bat deskubritu zuen, eta infinituaren ikurrarekin lotu. Anatomia eta energiara eraman zuen kontzeptu hori; horren arabera, dantzatzen garenean gorputza mugitzen dugu, baina baita energia ere. Ezinbestekoa

ANIBAL ANDRES QUICENO ETA CARLOS CARDOSO MOVIMIENTO INFINITO

Kolonbiako Movimiento Infinito Kolektiboa dantza emanaldia egingo du bihar Atlantikaldiaren barruan, Dantzaguneak Sortutakoak programarako aukeratuta.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

iruditzen zaigu bi aldagai hauetaz hitz egiten hasia, gorputza kontzeptu holistikoagoetara eramateko, finean ukitu eta eragingo digun zerbaitekin lotzeko.

ANIBAL ANDRES QUICENO: Bide horretan oso garrantzitsua izan da Carlos [Cardoso] bezalako kolaboratzaileekin bat egitea. Beste batzuk ere izan dira, Rafael Arturo Chitiva kasu. Une honetan Carlos eta biok ari gara, eta helburua, sorkuntzan harmonia aurkitzea da, hori gero buruaren eta gorputzaren arteko konexiora eramateko.

Dantzaguneak antolatutako Sortutakoak programarako hautatu zaituzte. Zer suposatu du horrek?

QUICENO: Zoragarria izan da. Halakoak laguntza handia dira, babes handia. Gure kasuan, kolonbiarrak izanik, bi kontinenteen arteko konexioa aurkitzea suposatu du gainera. Gure kolektiboan infinituaz hitz egiten ari gara, eta Sortutakoak, berriz, 11 zenbakiaz, Atlantikaldiak 11. ekitaldia duen bezala. Euskaraz, hamaikak, infinituarekin lotura handia dauka, bata bestearekin duen konexioaz mintzo da. Bete-betean dago lotuta guk lantzen dugunaren zentzuarekin.

CARDOSO: Ikastera etorriak gara Euskal Herrira, Leioan ari naiz ni ikerkuntza eta sorkuntza masterra egiten, eta ezagutza akademikoaz gain, bertan emandako denbora gure ezagutza partekatze baliatu nahi genuen. Dantzagunearen berri izan genuen, eta bata bestearen atzetik heldu zen. Gauza askoren kointzidentzia izan da.

Zer suposatuko du Atlantikaldian parte hartzeak?

QUICENO: Dantzagunea, Atlantikaldia eta Carlosi esker beste bat izango naiz Kolonbiara itzulitakoan. Erabateko eraldaketa bat izan da, niretzat eta proiektuarentzat. Ikasketa handia izan da. Energia infinitua.

CARDOSO: Ikaragarria da halako laguntzak izatea. Eta ikaragarria da espazio bakarrean hain ezberdinak diren bi kulturen arteko hurbilketa egiteko aukera izatea. Esker ona baino ezin dugu adierazi. Energia, antsietatea... Arte eszenikoetan lanean ari garenek jakin badakigu beti izango dugula urdurita-

sun, eta beharrezkoa da unean-unean gertatzen ari dena adierazteko, gainera. Zoriontasuna eta emozioa izango da nagusi halako jaialdi garrantzitsu baten barruan oholza gainean aritzea. Gure kulturatik, kolonbiarrak gara gu, besoak zabalik hartu gaituen kulturari zer edo zer transmititzeko aukera izatea handia da.

Flower of life lana da sortu duzuen. Zer kontatu duzue?

CARDOSO: Harremanez mintzo den duetoa da lana. Bizitzaren zuhaitza unitate bakar gisa ulertzen hasi, eta elkarrekin lanean ari diren 11, 1 eta 1 direla kontatzen du, hamaika gara elkarrekin komunikatzen. Harremanak ez direla errazak ere kontatzen du lanak, sorkuntza prozesu delikatuak direla, elkarriketa beharrezkoa da, eta bide horretan kaosa eta ordenaz mintzo gara. Horrek guztiak armonian mugitzen den mundu batera eraman behar gaitu, bestearekin lan egin, beste entzun, elkarrekin bizitzeko prest izan gaitzen.

QUICENO: Gauza bakarra gehituko nuke nik: dualtasunean pentsatzeari utzi eta banako, unitate bera gisa pentsatzen has gaitzen.

Zenbat denbora daramazue dantzan?

QUICENO: 18 urte. Hala ere, Kolonbian oso txikitatik hasten gara dantzan, festa guztietan egiten dugu dantza, denetarako. Esango nuke, beraz, dantzan jaiok gara.

CARDOSO: Urte mordo. Diziplina ezberdinetan aritu naiz ni aurretik. Dantza folklorikoarekin hasi nintzen, eta ballet garaikidera egin nuen jauzi.

Dantzaz bizi daiteke?

QUICENO: Bai ahal da bizi dantzaz. Nahiko genuke Sortutakoak proiektua bezalako laguntza gehiago izatea, baina bizi, bizi daiteke, beti ere, kontziente izanik honetaz bizi nahi duzula.

CARDOSO: Esfortzu bat suposatzen du, noski, ikasketa eta lanbide guztiek eskatzen duten bezala. Artista izateak erakutsi digu ezinbestean beste arlo asko-askotan ezagutza izatea beharrezkoa dela, dantzari, kudeatzaile, sortzaile, proiektu garatzaile... izan behar dugulako.

Sortutakoak eta Atlantikaldiaren ostean zer?

QUICENO: Martxan jarraituko dugu, lan honekin eta beste batzuekin. Dantza eskolak ematen jarraituko dugu. Heziketa proiektu bat dugu Kolonbian, Bogota hiriburuan zehazki, eta maila guztietako jendearekin ari gara lanean bertan hasi hastapen maila dutenekin, eta segi goi mailan ari direnekin. Ni etzi, igandea, itzuliko naiz Kolonbiara.

CARDOSO: Nik hilaren 27an aurkeztu

behar dut master amaierako lana, eta orduan erabakiko dut itzuli edota hemen gelditu denbora gehiagoz.

Dantza erregistrorik gustukoena?

CARDOSO: Dantza garaikidea. Ezberdin adierazteko aukera ematen dit, teknizismo oso zehatzera kateatu gabe mugimendua, eta zabaltasun hori gustatzen zait, eroso sentitzen naiz horretan.

QUICENO: Nik ere dantza garaikidea aukeratuko dut, bertan aritzen naiz gustuen. Azken aldi, baina, transzentalago jartzen ari naiz: bizitza dantza bat dela pentsatzen dut, unero ari gara dantzan sentitzen dut. Norbaitekin hitz egiten dudanean, jai giroan nagoenean, eskolak ematen ari naizenean... dantzan ari naiz.

Zer da dantza zuentzat?

CARDOSO: Dantza errespetua da. Eta horrek egiten dudana seriotasun osoz hartzea narama. Errespetua nire gorputzarekiko, bestearenarekiko, espazioarekiko. Errespetua eta zoriona da.

QUICENO: Gu baino handiagoa den zerbaitekin konektatzeko tresna da. ■

OIHALAK
ARTILEAK
IKASTAROA



ARTXIPELAGOA

Nafarroa hiribidea. 28
ERRETERIA-ORERETA
tel.: 843 67 17 34
@blazmo_ wool



IKUSI MAKUSI

Zure opari denda

Jostailu hezitzaileak

Punfa-puntako markak

Kalitatezko jostailuak

Tel: 943 52 88 53. Alfonso XI kalea, 3. Lokala. Erreteria - Orereta

Lete

itzulpenak

www.lete.net

administrazioa . publizitatea

liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net

www.lete.net

IKASTOLA

Oiartzo

etorkizunerako bidelagun

Erriotik, herri.

Biba Atlantikaldia!



www.oiartzoikastola.eus





Asturiar konexioa prestatzeko saioetako bat. Herri Arte Eskola

Musika tradizionalen mestizajea, laugarrenez

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Galizia, Katalunia, eta Galesen ondotik Asturias heldu da. Herri Arte Eskolak sustatuta elkartruke berriaren emaitza ikusi ahalko da Atlantikaldian, igandean 12:00etan, Itsasargi Nagusian. *Asturiar konexioak*, bi lurraldeetako musika, kantua eta dantzaren mestizajea eramango du oholtza gainera, eta bertan ariko dira Herri Arte Eskolako 50 ikasle eta irakasle, eta Pola de Sieroko (As-

turias) Laura Ruiz (ahotsa, panderoa eta dantza), Guille Perez (gaita), Nel Sanchez (akordeoi diatonikoa), eta Arsenio Ruizekin batera (danborra).

Fitoria dantza eskola eta El Ventolin Ikerketa eta Folklore taldeko irakasle da Ruiz. Bitan pentsatu gabe eman zion baiezkua Beñat Ralla Herri Arte Eskolako koordinatzaile pedagogikoari: «Iniziatiba ederra iruditzen zaigu, oso ondo egituratua eta landua». Oholtza nagusira eramango dutena prestatzeko, iaz egin zuten elkartrukea eta lan-keta lau asturiarrek Herri Arte Eskolako

irakasle eta ikasleekin. «Jo behar ditugun doinuetan trukea egitea proposatu ziguten, eta horietan, gaita, akordeoi diatonikoa, danborra, pandereta eta Asturiasko kantak txertatu ditugu. Guk proposatutako abestietan, berriz, beraiek egokitzapena egin dute. Instrumentu nahasketaren emaitza zoragarria izan da, baita dantzen ere».

Atlantikaldian pasako dute lehen proba handia publiko aurrean; ondoren, 2025eko apirilean, Pola de Sieron egiten den El Ventolin jaialdian bigarrena, han ere egingo baitute emanaldia.

Esperientzia alde guztientzat «ikargarri aberasgarria» izango dela sinistuta da Ruiz. «Gure konfort eremutik ateratzea aberasgarria da. Beste eskoletako lan moldeak ezagutzeko aukera eman digu. Aipatu behar dut txundituta gelditu garela Erretereriako Herri Arte Eskolarekin, udalak asko babesten du. Nabarmen gelditu da eremu bateko musika tradizionala, beste leku bateko instrumentu tradizionalekin egin daitekeela». Esaldi bakarrera eraman du esperientzia: «Musika hizkuntz unibertsala izan daitekeela argi gelditu da».

Emanaldia ikustera animatu du Ruizek. «Abestiak maitasunez aukeratu ditugu, eta jendea hunkitu eta dantzan jarriko dugu. Kultur nahasketa aberasgarria izango da, oso erakargarria. Sinbiosi modukoa izango da, bizitza osoa elkarrekin eman izan bagenu bezala». Tradizioak mantentzera ere deitu du, «herri batzuk besteekin ezberdindu eta batzen ditu musika tradizionalak». ■

Beerlagun

www.oarsoak.com

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

• Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
 • Banakako, bikote eta familia terapia
JAKOBE PSIKOTERAPIA
620.12.24.29
 Jakobe Batanero Alvarez
 Psikologoa GZ 1579
 Xenpelar kalea 6, solairuartea,
 5. bulegoa. Erretereria
www.jakobepsikoterapia.com

Atlantikaldia musika da batez ere, eta bertako zein bisitarietako asko-asko kontzertuen aitzakian gerturatuko dira, musika eskaintza ezohiko bikaina aurkitzeko aukera paregabea eskaintzen duelako kultur topagune eta musika jaialdiak. Eta musika da batez ere, kartel buruek zein beste artistek izaten duten erakarmenarengatik, baina ez hori soilik. Izan ere, jaialdiak ordezkatzen duen aniztasun horretan, bertan aurki daitezkeen diziplina eta egitarau eskaintza opa-roa ere oso anitza delako. 11.



Atlantikaldiaren aurreko ekitaldi batean haurrei eta familiei begira antolatutako tailer bat. Olaia Gerendiain

ekitaldia, orain arte bezalaxe, hamaika aukera eskaintzen ari zaie atzotik familiei. Oraindik ere hiru egun dituzte aurretik txikienei begira antolatutako egitarauarekin bat egiteko.

Gaur bertan haiei begirako bi tailer izango dituzte eskura Herrixkan —Foru Plaza—. Itsas animalien eskulanak egingo dituzte 6 urtetik gorako haurrei begira, eta *Olatua olatu* esperimintazio tailerra urtebete eta bost urte arteko haurrei zuzenduta; bi tailer horiek 17:00etan hasiko dira.

Beste bi tailer izango dituzte eskura bihar, larunbata, goizean. Musika sormen tailerlean, eta Gasteizko Creative Soul musika eskolak gidatuta, instrumentuen bidez musikara gerturatzeko aukera izango dute 9 eta 12 urte arteko haurrek. 11:00etan izango da hori Herrixkan. Leku eta ordu berean, Gurrpil

Familien neurrira (ere) sortu dute Artxipelagoa

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Artean elkarteak antolatutako bizikletak birziklatzeko tailerlean giltzatak bat sortuko dute erabilitako bizikleta kameren bidez. Tailer horretan bertan bizikleta escalextric-a probatzeko aukera izango dute hala nahi duten guztiek: bi bizikleta pedalei eraginda argia sortuko dute.

Ipuin kontalaria

Larunbat arratsaldean, 17:00etan hasita eta txotxongiloen bidez, itsasoaz eta migrazioaz mintzo den istorioa antzetzuko dute Herrixkan, elkarrekin nahastuko diren hainbat hizkuntzatan.

Atlantikaldiaren azken egunean ere izango dute txikienek non gozatu. Eskulan terapeutiko tailerra antolatu dute 6 urtetik gorakoentzat 11:30ean; eta ordu berean, arte liburu sorkuntza tailerren eskutik euren artista liburua sortzeko aukera izango dute, bakarka edo taldeka. Hartzaileak 6 urtetik gorakoak izango dira eta bi tailerrak Herrixkan egingo dituzte.

Horiekin batera, familiei begira antolatutako bisita gidatuak izango dira gaur eta bihar, baita paddle surfa egiteko aukera bihar arratsaldean ere. Azken horietarako izena eman behar izaten da alde aurretik, eta berehala agortzen dira lekuak. Musika eta kultura erruz datozen hiru egunetan ere, eta noski, etxeko txikienen neurrira ondutakoak ere esku-eskura Atlantikaldian. ■

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Errenteria

Tel.: 943 510 450

donbosco@donbosco.eus

www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1


20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900



Lanbide heziketa baino askoz gehiago





Albistur Gozatu Atlantikaldia!

Mantentze eta berritze-lanak

ALBISTUR ERAIKUNTZAK

Proiektu eta berrikuntza orokorrak · Arreta pertsonalizatua

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea . **SUKALDEEN ESPOSIZIOA:** Biteri kalea 2, behea
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es





EGITARAU OSOA HEMEN

labureus/atl



Atlantikaldia

IRLANDARA BIDAIA EMKE-REKIN

BIHAR, 13:00ETAN. Errenteriako Musika Kuktur Elkartek (EMKE) ez du hutsik egingo aurten ere Atlantikaldian. Bihar (larunbata) *Celtic tides* proposamena eramango dute, kontzertu bidez, Herrixkara. Irlandako doinuak ekarriko dituzte EMKE-koek itsas zabaletik herrira.



Atlantikaldia

OARTZUN IBAIAN ZUTIK NABIGATZEKO

BIHAR, 17:00, 18:00 ETA 19:00ETAN. Paddle surf jarduera Atlantikaldiaren klasiakoetako bat da. Fortuna Kirol Elkarteari esker, hiru txandatan Oartzun ibaian taulan zutik nabigatzeko aukera izango dute horretarako izena eman dutenek bihar, (larunbata) arratsaldean.



Atlantikaldia

MUNDUKO ZAPOREAK SORTU, ETA BANATU

ETZI, 10:00ETAN. Sukaldian egitasmoa aurten ere Atlantikaldian. Etziko (igandeko) 10:00etan herriko elkarteetan nazioarteko sukaldaritza tailerrak egingo dituzte, tokian-tokian jatorri bateko jakiak landuko direlarik. Ondoren, 13:30ean eta Herrixkan, egindako horiek banatuko dituzte, pintxo formatuan. Zaporeak elkarteari bideratuko diote jasotako dirua.



Atlantikaldia

MANCHESTER TXIKITIK, SIRENA HOTSETARA

EGUNERO. Programazioak aurrera egiten duen bitartean, jende multzoak ikusiko dira kaleetan. Izan ere, egunero, bisita gidatuak antolatu baitira herritik jauzika aritzeko. Gaurtik igandera arte bederatzi bisita gidatu izango dira (ordutegiak eta izen-emateak atlantikaldia.errenteria.eus-en). Manchester txikian hasi, eta sirena hotsetara iritsiko dira bisita horiek.

 @landare_herrikotaberna

LANDARE
HERRIKO TABERNA



**BOKATAK
HAMBURGESAK
SANDWICHAK
ENTSALADAK
PINTXOAK • RAZIOAK**

 **BALEA TABERNA**

Gamon Zumardia 16
Errenteria-Orereta
Tel.: 689 46 13 37

www.koldomitxelenaikastetxea.com

**KOLDO
MITXELENA**
Herri Ikastetxea

**ELKARREKIN
ARRAUN!**

Fernandez de Landa z/g - Errenteria-Orereta
Tel.: 943 89 91 87 - 012905aa@hezuntza.net



Errenteria 19-22 Iraila
Septiembre

Queralt Lahoz • Iseo & Dodosound
Francisco el Hombre • Morgane Ji
La Otra • Bele • Cocanha, Maddi
Oihenart eta Julen Achiary • La Txama
Esanezin • LaMia Mari • Bichos Raros
Safu • DJ Reimy • Sotoalde • Akaleia
Errenteriako Musika Banda • Ane Martija
Azul Ferreira • DJ Katanga • Elh Malick
Ganibet • High Alai DJ Set • Rig3l
Kbless DJ Set • Samba Badago
The Donkey Riders

Gatromonia • Dantza • Tailerrak • Kirola
Sorkuntza • Poesia • Bisita gidatuak
Bertsolaritza



atlantikaldia.errenteria.eus
@atlantikaldia2024

atlantikaldia



ERRETERIA
UDALA

KKULTURA
kreatiboa





aek

XENPELAR
BERRI
ESKOLA

nik dut
HITZA

nik dut
HITZA

Non-Stop

nik dut
HITZA

nik dut
HITZA

NIK DUT
HITZA

nik dut
HITZA

ANTONI
ARANBERRI
ANITZENA

nik dut
HITZA

ETA
ZUK?

nik dut
HITZA

Egin zaitetz HITZAkide!



labureus/nikduthitza

nik dut
HITZA

nik dut
HITZA

GAZTELU

nik dut
HITZA

nik dut
HITZA

nik dut
HITZA